

# Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2016ko urriaren 31tik azaroaren 4rako astea

---

## **INGURU MAKROA:**

- ASTEKO DATUEN PODIUMA
- KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...


## **ASTE HONETAN MERKATUETAN**

## **GURE IKUSPEGIA**

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### AEB: ISM ZERBITZUAK / ENPLEGUAREN DATUA



### Datuaren analisisa

ISM manufaktura-indizeak hobera egin zuen urrian; zerbitzuenak, berriz, behera (aurreko 57,1etik 54,8ra). Hala ere, analistek garrantzia kendu zioten indizearen beherakada horri, urteko daturik onenaren ostean gertatu baitzen. Bi indizeetan, osagaiak banan-banan aztertuta, emaitza mistoa izan da, eta zerbitzuetan beherakadaren zatirik handiena enpleguaren zatitik etortzeak sentrazio txarra utzi zuen. Izan ere, portaera okerrago horrek isla izango zuen gero enpleguaren hileko datuan. Urriko txostenean, enpleguaren sorreraren datua espero zena baino pixka bat txikiagoa izan zen (161.000 enplegu berri vs. 175.000 kalkulaturakoak). Hala ere, iraileko datua gorantz berrikusi zen (nahiz eta enplegu publikoaren sorreraren bidez), orduko batez besteko soldatak gora egin zuen eta langabezia-tasak hamarren bat behera.


### Adierazlearen azalpena

ISM zerbitzuen/manufaktura-indizea konpainia amerikar nagusietako erosketen arduradunei hilero egiten zaien inkesta bat du oinarri. Bertan, manufaktura-sektorearen egoeren inguruan galdetzen zaie. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: PMI MANUFATURA ETA ZERBITZUAK UEM



### Datuaren analisia

Europako PMIaren behin betiko datuek tonu positiboa izan zuten manufacturatan. Euroguneko indizea gorantz berrikusi zen, 53,3tik 53,5 puntuetara. Espainiakoaren igoera ere sendoa izan zen, 52,3tik 53,3ra, 52,6ra soilik igotzea espero bazen ere; eta Frantziak sorpresa eman zuen, 51,3tik 51,8ra mugitzean. Italian daukagu salbuespena, 50,9ko datuarekin (vs. aurreikusitako 51,4), bai eta Alemanian ere, aurreikusitakoa baino beherago zegoen 55,0rekin, nahiz eta aurreko hileko datua hobetu zuen. Zerbitzuen PMIari dagokionez, emaitzak pixka bat ahulagoak izan ziren. Euroguneko datua, azkenean, 52,8koa izan zen, aurreko hilekoko datua baino hobea, baina hasiera batean aurreikusi zen 53,5a baino apalagoa. Frantziakoa izan zen kasurik tristeena, 52,1etik 51,4ra jaitsi baitzen.

### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hilero erosketen profesionaleri eta enpresetako exekutiboeri manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuratzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### EUROPA: UK BoEren bilera



### Hazkundearen eta inflazioaren aurreikuspenak

	Crecimiento		Inflación	
	Actual	Anterior	Actual	Anterior
2016	2,2%	2,0%	1,3%	1,2%
2017	1,4%	0,8%	2,7%	2,0%
2018	1,5%	1,8%	2,7%	2,4%
2019	1,6%		2,5%	

### Datuaren analisisa

Inglaterra Bankuak interes-tasei eutsi zien, eta herrialdeko ekonomiaren ikuspegi baikorragoa eman zuen, pizgarri gehiagoren aukera murriztuz. Orain, erakundeak espero du Erresuma Batuen BPGd-a % 2,2 igotzea aurten, abuztuan aurreikusitakoa baino bi hamarren gehiago, eta % 1,4ra igo du 2017rako bere aurreikuspena, duela hiru hilabete kalkulaturako % 0,8 gaituz. 2018ari begira, BoEk hiru hamarren murriztu du bere aurreikuspena, % 1,5era hain zuzen ere, eta 2019an BPGd-a % 1,6 haziko dela ohartarazi du, Brexitak sortutako ziurgabetasunak eta inflazioaren igoerak familien kontsumoan daukaten eraginaren ondorioz. Izan ere, erakundeak inflazioaren inguruan egindako aurreikuspenak berrikusi zituen: % 2tik gorakoa izango da datorren urtean.

### Adierazlearen azalpena

Inglaterra Bankua (BoE) Erresuma Batuko banku zentrala da. Herrialdearen diru-politika zehazteaz arduratzen da, bere Diru Politikako Batzordearen bidez.

# INGURU MAKROA

## ASTEKO DATUEN PODIUMA

### TXINA: MANUFAKTUREN/ZERBITZUEN PMI



CPMINDX Index (China Manufacturing PMI SA) CH PMIs Diario 31MAR2014-03NOV2016

Copyright© 2016 Bloomberg Finance L.P.

Nov 2016  
03-Nov-2016 10:20:54

### Datuaren analisia

Jardueraren inguruko azkeneko datuek aditzera ematen dute Asiako erraldoiaren ekonomia egonkortzen ari dela urteko azken zatian. Manufaktura-sektorearen erorketa kudeatzaileen indizea 50,4 puntutik 51,2ra igo zen, esperotakoa pixka bat behera egitea zenean. Indize ez ofizialak ere, Caixinenak, hobera egin zuen: 50,1etik 51,2 puntura. Bai eta zerbitzuen sektorekoa ere: 53,7tik 54 puntura. Gainera, PMI Caixin zerbitzuak ere hobekuntza arrastoak utzi zituen. Urrian 52tik 52,4ra igo zen, azken lau hiletako maximoetaraino iritsiz. Gainera, enpleguaren eta enpresa-aukeren osagaiak hobetu ziren, eta azken 6 hiletako maximora heldu ziren.

### Adierazlearen azalpena

PMI Manufaktura/Zerbitzuak indizeak hileroko erorketen profesionalei eta enpresetako exekutiboari manufaktura-sektorearen egoerari buruz egiten zaien inkesta bat du oinarri. Fabrikazioaren/zerbitzuen sektorearen aldean ekonomiaren egoera zein den neurtzeko balio du. Adierazle ekonomiko aurreratu bat da, hau da, beste adierazle batzuek etorkizunean izango duten bilakaera aurreratzeko balio digu; kasu honetan, esate baterako, BPGd-arena. Emandako datua 50etik gorakoa bada, ekonomia hazten ari dela esan nahi du; hortik beherakoa bada, ordea, ekonomia uzkuertzen ari den seinale.

# INGURU MAKROA

## KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreikus.
11/7	Alemania	MoM fabriken aginduak	% 0.2
11/7	Espainia	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.5
11/7	Eurogunea	Markit Eurogunea xehekako merkataritza PMI	--
11/7	Eurogunea	Sentix inbertsiogilearen konfiantza	8.6
11/7	Eurogunea	Hileko xehekako salmentak	-% 0.3
11/8	Japonia	CI lider indizea	100.5
11/8	Alemania	Hileko SA MoM industria-ekoizpena	-% 0.5
11/8	Alemania	Balantza komertziala	2.24e+10
11/8	Frantzia	Balantza komertziala	-4.2e+09
11/8	Erresuma Batua	Hileko industria-ekoizpena	% 0.0
11/8	Erresuma Batua	MoM manufaktura-ekoizpena	% 0.4
11/8	Erresuma Batua	NIESR BPGd-aren kalkulua	--
11/8	Estatu Batuak	JOLTS eskura dauden enpleguak	5469
11/8	Txina	Balantza komertziala	5.17e+10
11/9	Japonia	BoP oinarritzko merkataritza balantza	6,688E+14
11/9	Txina	Urte arteko KPIa	% 2.1
11/9	Frantzia	Bank of France enp sentimentua	99
11/9	Erresuma Batua	Balantza komertziala	-3950
11/9	Estatu Batuak	MBA Hipoteken eskaria	--
11/9	Estatu Batuak	MoM handizkako inbentarioak	% 0.2
11/9	Estatu Batuak	Hileko handizkako merkataritza-salmentak	% 0.5
11/10	Frantzia	Hileko industria-ekoizpena	-% 0.3
11/10	Frantzia	MoM manufaktura-ekoizpena	-% 0.1
11/10	Italia	Hileko industria-ekoizpena	-% 1.0
11/10	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	260000
11/11	Japonia	Hileko ekoizpenaren prezioen indizea	% 0.0
11/11	Alemania	Hileko KPIa	% 0.2
11/11	Estatu Batuak	Sentimendua Michigango Unibertsitatea	87.9

# ASTE HONETAN MERKATUETAN

## BURTSAK

Amerikako hauteskundeak irabazteko Trumpen aukerak gero eta gehiago izateak kezka eragin zuen burtsetan, eta beherakada handiak izan zituzten aste horretan. Gainera, petrolioaren portaera eskasak beherakada horiek bultzatu zituen, nabarmenagoak izan zirenak Europan AEBtan baino. Japonia eta herrialde gorakorretan ere eman ziren jaitsierak. Ziurgabetasun politikoa eta petrolioaren lehenengo lerroan zeudela, banku zentralen (FED eta BoE) bilerek ez zuten arreta handirik bereganatu, esperotako gidoia bete eta politiketan aldaketarik ez baitzuten egin. Ingalaterrako bankuak, gainera, 2016 eta 2017rako espero zen hazkundearen gorantz berrikusi zuen, eta pixka bat behera 2018koa. Brexita oraindik arrisku-iturri izango dela ere esan zuen. Hain zuzen ere goi epaitegi britainiarrek Brexitaz emandako epaian esan zuen beharrezkoa dela parlamentuaren onspena Europatik "deskonektatzeko". Brexit "gogor" baten aukerak lasaitu ziren horrela. Aste honetan, gainera, enpresa-arloko emaitza ugari ezagutu dira, denboraldi nahiko positiboa marrazten ari diren emaitzak: AEBtako konpainien ia % 76k eta Europako % 60 inguruk etekinen aurreikuspenak gainditu dituzte.

## ERRENTA FINKOIA:

Arriskuarekiko beldurra handitzearen ondorioz, aterpe gisa ikusten den zorraren erosketak berraktibatu zituen. Urrian Europako bonuetan bizi izan ziren gorakadak hein batean lasaitzeko balio izan zuen horrek; jardueradierazle hobekuntza, inflazioaren aukeren hazkundea eta EBZk aktiboak erosteko programa ez luzatzearen aurreko beldurra kotizatu zirenean eman ziren gorakada horiek. Gauzak horrela, Alemaniako bonuak 3 op egin zuen atzera, % 0,14raino. Gauza bera gertatu zen Amerikako bonuarekin, 7 op jaitsi baitzen, % 1,78raino. Hegazkortasun handiagoa, 4 op igo ondoren, astea % 1,27an amaitu zuen Espainiako bonuarentzat. Eta tentsio gehiago ere kreditu europarrean.

## DIBISAK/LEHENGAIK:

Libera % 1etik gora indartu zen euroaren aldean, BoEren bileraren tonu baikorragoaren eta Brexitarren erabakia parlamentuak hartu behar duela esaten duen erabakiaren ondorioz. Dolarra, bestalde, 1,11\$/eur mailara itzuli zen, Amerikako ziurgabetasun politikoaren aurrean. Yuana ahul dago oraindik, eta dibisen saskiaren aurrean maximoetan dago. Ekoizpena murrizteko kuotak LPEEko herrialdeen eta karteletik kanpoko beste herrialde batzuen artean banatzeko akordio faltak eragin izan zuen aste osoan petrolioaren bilakaeran. AEBtan inbentario handiagoren aldeko presioa gehituta horri, % 5eko galerak izan zituen aste osoan. Bestalde, burtsen jaitsieraren ondorioz, urreak erakarmena irabazi eta % 2tik gora egin zuen gora.

INDIZEAK	PREZIOA	% Aldak. Astean	% Ald 2016
MSCI WORLD (Local)	1.265,33	-2,56	-0,97
IBEX 35	8.791,60	-4,45	-7,89
DJ EURO STOXX 50	2.954,53	-4,05	-9,58
DJ STOXX 50	2.730,05	-3,69	-11,94
FTSE	6.693,26	-4,33	7,22
S&P 500	2.085,18	-1,94	2,02
Dow Jones	17.888,28	-1,50	2,66
NASDAQ	5.046,37	-2,77	0,78
NIKKEI 225	16.905,36	-3,10	-11,18
MSCI EMERGENTES (Lo)	47.679,96	-2,36	7,19
MEXBOL	46.694,81	-2,73	8,65
BOVESPA	61.598,39	-4,21	42,10
SHANGHAI	3.272,24	0,68	-11,66
Rusia Rts Moscú	971,20	-2,12	28,29

Gobernuen tasak	Maila	Aldaketa Astean	% Ald 2016
ALEMANIA 2 URTE	-0,64	-0,02	-0,29
ESPAINIA 2 URTE	-0,21	-0,06	-0,21
AEB 2 URTE	0,78	-0,07	-0,26
ALEMANIA 10 URTE	0,14	-0,03	-0,49
ESPAINIA 10 URTE	1,27	0,04	-0,50
AEB 10 URTE	1,78	-0,07	-0,49
ALEMANIA 30 URTE	0,73	-0,07	-0,75
ESPAINIA 30 URTE	2,44	0,03	-0,54
AEB 30 URTE	2,56	-0,05	-0,45
<b>Kreditu-spreada (op)</b>			
MARKIT ITRX EUROPE 12/21	76,09	3,58	-1,18
MARKIT ITRX EUR XOVER 12/21	338,56	10,07	23,95

Dibisak	Maila	% Aldaketa Astean	% Ald 2016
Dolarra / Euroa	1,11	1,45	2,55
Yena / Euroa	114,28	-0,54	-12,50
Libera / Euroa	0,89	-1,16	20,56

Lehengaiak	Maila	% Aldaketa Astean	2016ko % Ald
Petrolio (Brendt)	45,57	-5,00	27,47
Urrea	1.304,60	2,28	22,91

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.